

ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA PLANA 2011/2012

Ikasturtearen hasierako aginduak azaltzen duen moduan, hauek dira, besteak beste, orientatzaileari dagozkion zeregin nagusiak:

(...)

b) Orientazio Plana prestatzea eta, zuzendaritza-taldearekin batera, tutoreei laguntzea eta aholkuak ematea tutoretza-plana prestatzen, eta horren berri jasotzea Urteko Planean eta Departamenduko Urteko Memorian.

c) Ikastetxeko ikasleentzako lanbide-orientazioko programa bat prestatzea etapa guztietarako, plan hori garatzen laguntzea; horretarako, jarduera zehatzekin bokazio orientazioko prozesuak diseinatzea, eta ikasleen arteko berdintasuna bultzatzea etorkizuneko lanbidea hautatzean.

(...)

f) Ikasleek ikasteko zailtasunak dituztenean, tutorearekin, taldeko irakasle-taldeekin eta Orientazio Departamentuarekin egoera aztertzea eta aholkuak ematea hezkuntza indartzeko eta, behar izanez gero, curriculum ahalik eta ondoen egokitzeke.

g) Ikastetxean sor daitezkeen jarrera- eta bizikidetzara- arazoak aurreikusi eta konpontzen laguntzea.

(...)

i) Ikastetxeko irakasleei aholkuak ematea berriazko arretako planak eta programak (curriculum anitzeko gelak, zereginen ikasteko gelak, Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Proiektuak) diseinatu, egin eta ebaluatzen eta plan eta programa horien jarraipena egiten.

j) Aldian-aldian maila bakoitzeko irakasleak koordinatzeko bilerak egitea, aholkuak emateko tutoretza-plana garatu eta ebaluatzeke eta batez ere ikasleak orientatzeko zuzendutako jarduerak egiteko.

k) Ikastetxetik kanpoko hezkuntza- eta gizarte-eragileekin eta komunitate-eragileekin koordinatzen laguntzea, ikasleen jarraipen egokia egiteko, ikasleak integratzeko eta ikasleek ikasketetan arrakasta izan dezaten.

LAN EGITEKO ESPARRUAK

Aurrean aipatutako zereginak esparru hauetan garatuko dira:

I. TUTOREEKIKO LANA:

Zuzendaritza taldeak tutoreen ordutegiak egiterakoan astean ordu bat kontenplatu du koordinaketa bilerak egiteko. Hau dela eta, maila desberdinetako tutore guztiek ordu bera libre izango dute koordinaketa hau martxan jartzeko eta aurrera eraman ahal izateko:

- 1.mailako tutoreak + orientatzailea ---- astearteko 1.saioan.

- 2.mailako tutoreak + orientatzailea ---- asteazkeneko 3.saioan.
- 3.mailako tutoreak + orientatzailea ---- asteazkeneko 5.saioan.
- 4.mailako tutoreak + orientatzailea ---- ostiraleko 3.saioan.

Esan bezala , koordinaketa bilera hauen arduraduna orientatzailea izango da eta Orientabide gelan egingo dira. Aipatzekoa da ikasturte honetan orientatzaile bi egongo direla, bigarrenak ordutegiaren herena beteko duelarik. Azken honek DBH 4ko tutoretzaz eta orientazio lanaz arduratuko da. Orientatzaile biren arteko koordinazioa bermatuko dugu. Horretarako, beharren arabera, astearteko bigarren orduan biltzeko aukera izango dute.

Urtero bezala, pasa den ikasturtearen amaieran ikasleek eta tutoreek beraiek tutoretza saioen ebaluazioa egin zuten. Orientatzaileak, balorapen horiek kontuan hartuta, eta bere gogoeta propioetatik abiatuta, 10/11 ikasturteko memorian 11/12 ikasturterako balio behar zuten proposamenak jaso zituen (Tutoreekiko Bileren atalaren barruan, egindako lanaz aipaturiko aspektuak):

(...)

Balorapena

(...) esan behar da tutoreek gero eta arazo handiagoak topatzen dituztela tutoretza saioak aurrera ateratzeko. Hau kontuan harturik, taldeen dinamika eta bilakaeraren jarraipena egiteko bilera hauek jokatu behar duten papera indartu beharko genuke.

Proposamenak

Jarraitu behar dugu aztertzen tutoretzari etekina ateratzeko modu desberdinak. Tutoreekiko bilerak honetarako daukagun baliabiderik garrantzitsuena da. Bilera hauetan jorratu beharreko ildoak hauek dira:

- *Tutoreek talde dinamikak era egokian aurrera eramateko baliabideak garatzea berez helburua izango da.*
- *Aurrekoarekin lotuta, ikasleek taldean gaiak era egokian lantzeko eta debatitzeko gaitasunak garatzea berez helburua izango da (une bakoitzean lantzen den gaia bera bezain garrantzitsua)*
- *Idea nagusi horietatik abiatuz, tutoreen bilerak erabili beharko dira era argi goan tutoretza plana zehazten joateko.*

Hausnarketa hauetatik abiatuz, tutoretza lana birplanteatzea proposatzen ari gara tutore taldeen bileren bitartez (tutoretza saioei dagokienez behintzat). Ikuspegi berria gure Elkarbizitza Planean azaltzen den bigarren helburuaren ildotik doa: "Hainbat estrategia garatu, elkarrizketan eta errespetuan oinarritzen diren harremanak, bitartekaritza, funtzio eta ardurak ezberdinen onarpena eta pertsonen arteko zaintza sustatzeko"

Planteamendu hauek jarraituz saio batzuk beti egin baditugu ere, berria da hau gure tutoretza lanaren ardats nagusia bihurtzea. Tutore bileretan proiektu hau onartu eta gero, martxan zelako arazoak sortzen diren eta zelako emaitzak ematen dituen baloratzen joango gara.

Tutoretza Planari dagokionez, irizpide nagusiak mantendu egingo ditugu, eta, beraz, pasa den urteko markoak balio du oraindik. Kontua da lehenasuna emango diogula hirugarren atalari (Taldekideen arteko harremanak / Elkarbizitza / Taldearen arazoak aztertzea). Uste dugu posible izango dela beste atalen barruan landu nahi den gehiena geletako "asanblada" horien bitartez aurrera eramatea. Hala ere, puntualki saio espezifikoak egingo ditugu zer edo zertan eragin behar dugula ikusten dugun neurrian (ikas ohiturak, orientazioa...). Aipatu bezala, helburu nagusia mantendu egiten dugu: *"Tutorearen helburua ikasle bakoitza zein taldearen egoera ezagutzea eta hobetzea da. Tutoretza saioak horretarako daukan tresnarik nagusia dira"*

Eta lana kokatzeko tresna bezala funtsezko lau atal bereizten jarraitzen dugu:

- a. Alderdi akademikoa:** *Tutoretza saioen bitartez ikas ohitura egokiak garatzen saiatuko gara. Helburu nagusia ikasle bakoitzak, era autonomoan, bere ikasketen ardura hartzea izango da. Tutoretza saio batzuk horretarako erabiliko dira, bai tresnak garatzeko (ordutegia...) baita bakoitzaren ohiturak ebaluatzeko ere. Azpimarratu behar da ohiturak landuko direla eta ez teknikak, hauek jakintzagai bakoitzarekin lotuta landu behar direlako.*
- b. Orientazioa:** *Ikasmaita bakoitzean dauden beharren arabera, tutoretza saioak erabiliko dira informazioa emateko (aukera eta hautazko arloak, ibilbide desberdinak...), ikasleen gogoak eta interesak ezagutzeko eta abar. DBH 4ko ikasleen tutoretzaren barruan lan honi garrantzi berezia emango diogu.*
- c. Taldekideen arteko harremanak / Elkarbizitza / Taldearen arazoak aztertzea:** *Tutoretza saioak, alderdi honi dagokionez, erabiliko ditugu ikasleen arteko zein irakasle edo beste langileekiko harremanetan ohitura egokiak garatzen saiatzeko. Horretarako, ikasleak institutura heltzen direnetik oinarrizko ideia batzuk landuko ditugu eta, funtsean, elkarren arteko harremanetan errespetuz jokatzek daukan garrantzia azpimarratuko dugu. Lan hau eraginkorra izan dadin, saiatuko gara, behaketa sistematikoaren bitartez, eguneroko gertaeretatik adibideak jasotzen, gero tutoretza saio batzuetan ikasleekin gaia lantzeko. Esparru honen barruan kokatzen dugu ikasturte honetan bultzatu nahi dugun ikasleen parte hartzea bideratzea. Ikasleekin dauzkagun saio hauek balio beharko lukete haien eskaerak edo kexak agertzeko eta bideratzen laguntzeko.*

d. Alderdi pertsonala: *Honen barruan kokatzen dugu, ikasleen garapen-aldiaren arabera, garrantzitsuak diren gaiak aztertzea eta eztabaidatzea. Atal honen barruan kokatuko lirateke heziketa afektibo-sexualarekin loturiko aspektuak, drogamenpekotasunen prebentzioa eta abar. Ikasturte honetan nesken kontrako erasoen prebentzioarekin lotutako saioak kokatu nahi ditugu. Helburua da gai hau modu desberdinetan DBH osoan lantzea. Esparru zabal honen barruko gai batzuk lantzeko, adituen aholkularitza edota parte-hartzearekin kontatzea garrantzitsua da. Bilboko Udaletxeko teknikariek ikasturtearen hasieran luzatzen dizkiguten proposamenak aztertu eta adostu beharko ditugu.*

Ikasturte honetarako planteatzen den aldaketa kontuan hartuta, hiruhilabeteko bakoitzean sortu ohi ditugun saio sekuentziak berplanteatuko dira. Printzipioz "ohiko saio" bezala taldearen asanblada egingo dugu. Tutoreek ikasleei asanblada horiek era egokian eramateko tresnak emango dizkiete, eta ikasleek beraien proposatzen dituzten gaiez aparte, tutoreak gaiak proposatuko ditu ere bai. Gaiak proposatzerakoan elkarbizitzari zerikusirik daukanari garrantzi berezia emango diogu.

II. IKASLEEKIKO LANA:

IKASGELETAN: Hirugarren eta laugarren mailetakoko geletan orientatzaileak parte hartze zuzena izango du orientabide akademiko eta profesionala aurrera eramateko. Konkretuki, aurreikusten dugu DBH 4ko gela bakoitzean saio bi izango dituela, eta DBH 3ko gela bakoitzean saio bana. Saio hauek bigarren hiruhilabetean egingo dira. Beste aldetik, antzemandako beharren arabera, saio kopuru hori alda liteke.

ORIENTABIDE GELAN: Orientatzailearekiko elkarrizketak ikasleentzako baliabide eskuragarria eta ohikoa izatea nahi dugu. Landu beharreko gaiak, eta eskaeraren jatorriaren arabera, aukera bi bereizten ditugu:

- Banakako orientazio elkarrizketa: Ikasleek, aurretik ordua eskatuz, informazioa eskuratzeko, zalantzak argitzeko, arazoak azaltzeko eta abar, orientabide gelara joateko aukera izango dute. DBH4 ko ikasleen kasuan, ziurtatuko dugu ikasle guztiek gutxienez elkarrizketa bana izango dutela.
- Mota desberdinetako arazoak dituzten ikasleekiko esku hartzea: Orientatzaileak, tutoreen zein gurasoen eskaeren aurrean, kasua baloratu eta esku hartze egokiena bideratzen saiatuko da.

III. GURASOEEKIKO LANA:

- Banakako eskaerak: Ikasturtean zehar sortzen diren arazoak direla eta, gurasoek orientatzailearengana jotzeko aukera izango dute.

- DBH 4ko guraso guztiakin, orientazio prozesua ixteko, elkarrizketak egingo dira. Ikasturte honetan, argi ikusten ditugun kasuetan, elkarrizketa hauek lehenago egiten saiatuko gara (lehenengo ebaluazioa eta berehala). Edozein kasutan ziurtatuko dugu elkarrizketa guztiak geroko ikasketen matrikulazio epeak baino lehenago egiten direla (gutxi gora behera apirilaren amaierarako).
- Bilera informatiboak: Hiru eta laugarren mailako ikasleen gurasoen kasuan, orientabide programaren barnean programatuta daukagunez, bigarren hiruhilabetekoan bilera informatibo bat antolatuko dugu. Honen helburua, seme-alabek DBH bukatu ondoren dituzten aukera akademiko eta profesionalak aztertzea izango litzateke.

IV. KANPOKO ERAGILEEKIKO LANA:

Beharren arabera orientatzailea kanpoko eragile desberdinekin kontaktoan arituko da, eta kasu batzuetan elkar lanean ere bai. Besteak beste:

- Bilboko Udaleko teknikari desberdinekin:
 - Drogomenpekotasunen Prebentzioetako Teknikaria
 - Eskola Osasuneko Teknikaria
 - Gizarte Zerbitzuetako Teknikariek
 - Gugaz Aurrera Programako Arduradunekin
 - Eskolatze Osagarriko Programaren arduradunarekin
 - (....)
- Berritzeguneko aholkulari desberdinekin.
- Kontsulta publiko eta pribatuetako profesional desberdinekin (psikologo, pedagogo, psikiatra, mediku....).
- Ikastetxe ezberdinetako arduradunekin (Orientabide akademiko eta profesionala egiteko behar dugun informazioa jasotzeko)
- Bestelakoak...